



Itsasi Dantza taldeak artzain eta inude konpartsa atera zuen lehen aldiz, 1980.urtean.

Urteurrena prestatzen

Itsasi Dantza taldeak abenduan hasiko ditu 25. urteurreneko ospakizunak

1976. urtean jaio zen Itsasi dantza taldea. Loiolan egin bazuen ere lehen agerraldian, urte bereko urrian, 1977ko saninazioetan egin zuen lehen emanaldi ofiziala herriko plazan. Taldearen helburuak oso garbi zeuden hasieratik: Euskal folklorea, musika eta dantza, batez ere, erakutsi, hedatu eta berritu. Horretan aritu dira azken 25 urteak, etenik gabe.

Ehundaka lagun izan dira Itsasiko kide, garai batean edo bestean. Umeen dantza taldean, helduenean, musika arloan edo zarpantzarretan. Beti ere, euskal ohitura zaharrak erakutsi nahian, baina egungo ikusmoldea ahaztu gabe.

25 urteko historian Itsasik atal ezberdinak ezagutu ditu bere barnean. Hor izan ditu dantzariak, txistulariak, dultzaineroak, fanfarrea, zarpantzarretak, eta abar. Azpeitiko jai guztietan presentzia izatea izan du helburu, eta kanpora ere zabaldu da, bai Euskal Herrira, eta baita atzerrira ere.

Sansebastinetako danborradan present izan da Itsasi taldea, bai helduenean, bai haurrenean. Inauterietan ere kalean izan dira: txikiteo elegante egunean Artzain eta Inudeen konpartsa kaleratzen du, eta moztorroen egunean, ttunturroak ateratzen ditu. Saninazioetan agintariei egiten zaien aurrekuan parte hartzen du,

PARTAIDETZA

Ehundaka lagun izan dira Itsasiko kide, garai batean edo bestean

Urteurrena

Urteurrena prestatzen hasiak dira, jadanik, Itsasi dantza taldekoak. Abendutik aurrera hasiko dira ospatzen, eta hainbat ekitaldi dituzte buruan. Oraindik ere hainbat kontu zehazteke badituzte ere, aurreratu daitezke zenbait gauza. Taldearen historia laburtuko duen liburua kaleratuko dute hurrengo udaberrian. Liburuarekin batera, bideoa ere prest izango dute. Erakusketak ez dira faltako: dantzako jantziak, musikoena, argazki erakusketa, eta abar. Folk musika lantzen duen talde galiziar baten antolaketa beregain hartuko du Itsasik, eta dantza jaialdia ere antolatuko du. Azkenik, taldean izan diren kide guztien arteko bazkaria izango da, urteurrena ederki ospatzeko.

eta urte askotan atera da Gorputzetako prozesioan. Dantza ikastaroak ere antolatzen ditu udazkenean haurrentzat eta helduentzat. Maiatzean antolatzen den dantza jaialdiko antolaketa ere burubelarri dabil-tza. Beraz, ikusten denez, Itsasikoek badute zer eskainirik herrian.

Nazioarteko jaialdiak

Edozein talderen antzera, Itsasik ere, jende aurrean agertzea du helburu, eta urte osoko lana erakutsi. Aurten ere Azpeitian ikusi ahal izan ditugu uztailearen 21ean. Beste herrietatik ere jaso dituzte gonbidapenak, hala nola, Mutrikuko eta Oiartzungo jailetan izango dira, eta abuztuaren 10ean, berriz, Italiako Sizilia aldera joango dira. Hurrengo urtean Kanadara joateko esperantzarik ez dute galdu oraindik. Ea zorterik duten, eta itsasoa zeharkatzeko aukera sortzen zaien.

Nazioarteko jaialdi erraldoiak ere ezagutu dituzte 25 urteotan. 1987. urtean Inglaterran izan ziren, Sidmouth-ko jaialdi ezagunean. 1988an Frantziara egin zuten bidaia, Orleansera, hain zuzen ere. Lau urte beranduago, 1992an, Holandan eta Belgikan izan ziren. 1993an Europa Ekialdeko herrialdeak ezagutzeko parada izan zuten: Polonia eta Bielorrusia, hain zuzen. 1995, 96, 98 eta 99an Alemania, Holanda eta Frantziako jaialdiak ezagutu zituzten. Azkenik, iaz, Ingalaterrako Billingham jaialdian izan ziren. Espainian ere hainbat tokitan izan dira.

IZARRAITZ
AGENTZIA INMOBILIARIA

Pisuen,
Lokal Komertzialak,
Baserriak, Pabilioiak
eta Lurren Salmenta,
Alokairua eta Traspasoa.

Erdi kalea, 2 behea
© 943 81 67 77 - Faxa: 943 81 69 78
E-mail: inmobiliaria@izarraitz.com
AZPEITIA



Erloju eta Bitxi Denda

Ondo pasa
San Inazioak

Goiko - Kalea, 4
Tfnoa. 943 81 13 49
AZPEITIA



B.N. Korporala
solariuma
estetika
masajea
elektro-eskultura
depilazioa
laserra
covermark

Enparan, 15 - 1. - Tel. 943 81 38 98
20730 Azpeitia




Larrea
Tapizeria
Dekorazioa
"Ondo pasau
San Inazioak"

Olatz Plaza, 6 - Tel.: 943 15 15 76
20730 AZPEITIA

Ongi Etorri
Patetxea

La Salbe Auzunea, 21
© 943 15 08 69
20730 AZPEITIA



ARGAZKI LANAK
Ondo pasau
San Inazioak!

Loiolako Inazio Hiribidea, 33
Tel.: 943 81 52 15
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



Kiroterapia
Osteopatia
Wonder metodoko
linfa-drainadura
Estetika
Gorputzekoak
Solariuma

Guztiz naturalak diren printzipio
aktiboak dituen kosmetika-linea
Loiolako Ignazio Iribidea, 19
© 943 15 11 48 - 20730 AZPEITIA

URBITARTE 4 - BEHEA
TEL.: 943 15 12 87
20730 AZPEITIA

Ondo pasa
San inazioak!

urke

ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK

ZALDIKO



• Poltsak
• Bitxiak
• Opariak
• Maki-latu ere egiten dugu

La Salve, 15 - Tel.: 943 15 12 75
AZPEITIA

OKINDEGIA
OGI-EDER

Landeta auzoa, 34 - © 943 81 26 64
Labetxiki - © 943 81 58 05
Pablo VI - © 943 81 34 92
Euskalerria - © 943 15 05 44
La Salve - © 943 81 32 90

AZPEITIA